This is a digital copy of a book that was preserved for generations on library shelves before it was carefully scanned by Google as part of a project to make the world's books discoverable online.

It has survived long enough for the copyright to expire and the book to enter the public domain. A public domain book is one that was never subject to copyright or whose legal copyright term has expired. Whether a book is in the public domain may vary country to country. Public domain books are our gateways to the past, representing a wealth of history, culture and knowledge that's often difficult to discover.

Marks, notations and other marginalia present in the original volume will appear in this file - a reminder of this book's long journey from the publisher to a library and finally to you.

Usage guidelines

Google is proud to partner with libraries to digitize public domain materials and make them widely accessible. Public domain books belong to the public and we are merely their custodians. Nevertheless, this work is expensive, so in order to keep providing this resource, we have taken steps to prevent abuse by commercial parties, including placing technical restrictions on automated querying.

We also ask that you:

+ *Make non-commercial use of the files* We designed Google Book Search for use by individuals, and we request that you use these files for personal, non-commercial purposes.

+ *Refrain from automated querying* Do not send automated queries of any sort to Google's system: If you are conducting research on machine translation, optical character recognition or other areas where access to a large amount of text is helpful, please contact us. We encourage the use of public domain materials for these purposes and may be able to help.

+ *Maintain attribution* The Google "watermark" you see on each file is essential for informing people about this project and helping them find additional materials through Google Book Search. Please do not remove it.

+ *Keep it legal* Whatever your use, remember that you are responsible for ensuring that what you are doing is legal. Do not assume that just because we believe a book is in the public domain for users in the United States, that the work is also in the public domain for users in other countries. Whether a book is still in copyright varies from country to country, and we can't offer guidance on whether any specific use of any specific book is allowed. Please do not assume that a book's appearance in Google Book Search means it can be used in any manner anywhere in the world. Copyright infringement liability can be quite severe.

About Google Book Search

Google's mission is to organize the world's information and to make it universally accessible and useful. Google Book Search helps readers discover the world's books while helping authors and publishers reach new audiences. You can search through the full text of this book on the web at `http://books.google.com/`

600096621U

Nº 340, En Vinaza. 35c.
E. S. Dodgson. 31 Agosto 1893.
por Don Antonio Makazaga
(vicario de Orio)

MUTILLCHOAI

BÉREN ANIMEN ONERACO

TRAJANOPOLIS-CO ARZOBISPO JAUN

D. ANTONIO MARIA CLARET-EC

ZUCENTZEN DIZTEN AVISO ESPIRITUAL,

erdaraz ipiñiac, eta Apaiz Jaun baten

aguinduz eusquerara itzuliac.

Vitoriaco Obispo Jaunaren baimenarequin.

AZPEITIAN:

PABLO MARTINEZ-EN MOLDIZTEGUIAN

1864—GARREN URTEAN.

16-7-97 14198. f. 48.

Es propiedad.

†

LICENCIA DEL ILLMO. SR. OBISPO DE VITORIA, COMUNICADA POR SU SECRETARIO DE CÁMARA EL DR. D. JUAN TORNERO.

En la exposicion que dirijió V. á S. S. I. el Obispo mi Señor con fecha 10 del próximo pasado Julio, ha recaido en el dia de hoy el Decreto siguiente.

Por cuanto examinada de órden nuestra la traduccion, que en lengua vascongada ha sido hecha por un Sacerdote, de los tres Opúsculos titulados «AVISOS SALUDABLES Á LAS DONCELLAS,» «AVISOS SALUDABLES PARA LOS NIÑOS» Y «DEVOCION DEL SSMO. ROSARIO;» escritos por el Exmo. é Ilmo Sr. D. Antonio Maria Claret, Arzobispo de Trajanópolis, y encontrada fiel y exacta, concedemos por nuestra parte la licencia al impresor de la villa de Azpeitia D. Pablo Martinez, para que pueda darla á la prensa. Comuníquese este nuestro Decreto al interesado por nuestra Secretaría de Cámara.

Lo que en virtud de lo mandado en el

preinserto Decreto, comunico á V. para su inteligencia y efectos.

Dios gue. á V. m.^{s} a.^{s} Vitoria 2 de Agosto de 1862.

Jr. D. JUAN TORNERO.
ARCEDIANO SECRETARIO.

Bedeicatua izan dedilla
Zure garbitasuna beti,
Poz-zayo bada Jainco dan bati
Edertasun añ chotilla.
Zuri, Princesa ceruracoya,
Virgiña done Maria
Gaurdanic nere escañia
Anima, biotza ta bicitza;
Beguiac niganontz bitza
Amacho ez arren ni utzi ¿ah?

Amardun onec dauzca OGUEI TA EMERETZI MILLA TA SEIREUN EGUNECO indulgenci edo barcacioac; eta AVE MARIA PURÍSIMA esanta irabazten dira beste BI MILLA BOST EUN TA LAROGUEI EGUNECOAC, eta beste aimbeste SIN PECADO SOIS CONCEBIDA eranzunaz.

MUTILLCHOEN ICAS-BIDERACO AVISOAC.

Jesucristogan mutillcho guciz maiteac: ez nintzaque iduquico nere Maisu jaincozcoaren imitatzalletzat, ez nioque ere erantzungo nere barrumbean senti dedan, zuec ganaco ongui-nayari, baldin itzeguingo ezpanizuquee dizutedan naitasuna aguertuaz, eta conseju on ta osasungarriac emanaz. Nai det; bada, jaquin dezazuten, ecen Jesus-ec munduan predicatzen cebillenean aurrai chit naitasun andia aguertzen ciela, eta bera gana alderatzen aur ayei galeraci nai cienai, aserreturic esaten ciela: ayena zala ceruetaco erreinua. Berebat esaten dizutet nic, mutillcho maiteac, zuena dala ceruetaco erreinua, baldin, aleguin andiac eguiñ arren demonioac

zuec pecatuan jaucitceco, ceron buruac garbi ta pecatu gabe gordetzera sayatzen baccrate.

Iru motivo dira aúrrai pecatu eraguiteco demonioac dauzcanac: lenengoa, aúrrac garbi ta pecatu gabe badaude, Jaincoac chit maite dituala, eta bere adisquide maiteai becela munduco, animaco eta betico gracia eta ondasúnac ematen diztela, nola baitaquian, iñoren ona eciñ eraman dualaco, aurren on au iñolaere ecin sufritu al izatea. Bigarrena: ceren baldiñ chiquitatic pecatu eraguiñ al badie, guero bici gucian gaitzera griñatuaz ta oituaz daramazquian. Eta irugarrena: aúrrac erbal ta ez-jaquiñagoac diran becela, bere lazoetan zori gaistoan erori eraciaz, errazago irabazten ta bereganatzen ditualaco. Beragatic, gogoraturic, nola zuei, arrazoyaren ezagüera osora irichiai becela, demonioac guerra portitza eguingo dizuten;

nola zuei betico galera eracartzeco chit lazqui perseguituco zaituzten, dala ejemplo ta eracuste gaiztoen bidez, dala tentacio ta burutacio gaiztoenez, edo, guciaz gañ, lagun gaisto ta lotsagarrien bidez; zuei dizutedan naitasunaren indarrez eta nere bear-gai sagradua betetzeco, pensatu det, San Agustiñ-ec aúrrentzat escribitu cituan conseju jaquintsuetatic aterataco cembait azalduco dizquitzuten liburucho au zuen escuetan ipintzea, conseju abec zuen aurtasunean pecaturaco bide gaizto, estropezu ta irrista-lecuac ecusteco arguitzat servi deguizuten, zuen sasoicoric gueyenac ala zori gaiztoan chit sarri erortzen diran becela erori etzaitezten.

¡Ay ene maiteac! eztaquizute ceñ maite zaituztedan; ta bera gatic bear becelaco estimacioarequin artu bear dituzute conseju ta aviso abec, bada bacarric zuen oneraco ematen dira. Nere aldetic, al-

baneza, beti dirauten letraquin escribitu eta zuen biotzen erdi erdian josi nai nituzque, iñoiz eta puntu bacar batean ere aztu ez daquizquitzuten: ¡aimbesterañocoa ta añ andia da bérac daucaten eta daucatela uste dedan balioa! Urteetan cerbait aurreratuaz zoaztenean, au cergatic dan, erraz ezagutuco dezute..... Bai, ene adisquidechoac, ceren baldin cembat gazte zuen edadean conseju abezaz aztutzen diralaco, eta, are gueyago dana, icasi ez dituztelaco, zorigaiztoan galtzen diran, bacenequite, liburucho au urre ta joya guciac baño maiteago izango cenduqueela, seguru nago. Eta eguiaz ¿abec guciac, eta munduco ondasun guciac batean ere cer dira, liburucho onen aldean? Liburu onec dacartzian conseju, aviso ta eracus-bide andi eta osasungarrien parean ayec eta mundu gucia ere utsa baño ascoz guchiago dira. Bai, ascoz guchiago, ala baña ¿cer balio-

co lizuquee mundu guciac baldiñ ceroc galtzen baciñate? Jaquin bear dezute, bada, munduco ondasun guciaquin, eta milla mundu balira, béretaco aberastasun guciaquin duda gabe galduco ciñatequeela, baldiñ aviso on abec alde batera utzi edo despreciatuaz bérac aguintzen dizutena eguitera sayatuco ezpaciñate.

Orregatic animen eiztari trebe ta asco-jaquin demonioa animac conseju abec icasi ez ditzaten, edo aztutzen utzi ditzaten milla modu ta eraz baliatzenda, onela pecatuan amileraguiteco, batez ere aur biguñ ta ez-jaquiñen animac. Berenez gauzaric on eta gaitz gabecoetarañocoaz valiatzen da demonioa, au da, jostatzeco aldare ta elizachoac eguiteco demborarañoco guciaz, cerbait icasteco ta jostaqueta garbietaraco maisuac beren dicipuluai ematen dien demborarañoco guciaz. Nola mutilchoac pecatuan erori eraci ta galtze-

co ocasio ta derech guciai beguira baitagoan, bere asmo bigurriac betetzeco ecer ere muguitu gabe uzten eztu. Emen ejemplo ta eracuste gaiztoaquin chit garbiac eztiran itzac esatera ciricatzen ditu; an contu èta ipui loyac contatzera; beste aldean bi eratara adi litezquean itz zatárrac esatera; areunagoan pintura ta estampa nazcagarriaz, liburu gaizto debecatuen iracurtzeaz. Batzuetan tentatzen ditu frutaquin, Eva becela, gauza chiqui ta valio guchicoetan bederic lapurreriara oitu eraciaz; eta besteetan isutzen ditu carta joco edo beste jostaqueta galgarri debecatuaquin. Emen lagun urcoaz burlatzen dira, an gogait eraguiten diote eta alde ta era gucietara naigabeac ematen diozcate, eta sortzen dituzte ascotan erroidu ta errietac ceñac itzaltzen ta auzoaquin galdu dan paque ta sosegua berritzen chit gaitz izan oi baitan.

Eta ¿cer esango dizutet adisquidetasun eta trataera galgarri eta beste asco naspilla ta catrambillaz, au da, Job Santuaren liburuac dionez, gazteai beren lenengo urteetan ezurretaraño zartzen zaizten utseguite abezaz? Gazte centzu gabeen artean eguiten diran asco ta asco pecatu jaquiteac era onetan zuei escribitzera narama ta beartzen nau ¡Oh! ¡cer erruqui ta lastima ematen duan oraindic arrazoyaren ezagüerara ozta irichi diran gaztecho batzuec pecatu asco eguiten ecusteac! Badira aurrac, oraindic chiqui diralaric confesore gajoai cer-eguiñic asco ematen diztenac, penitenciaco tribunalean nola artu iya eztaquitelaco. Ceren eguindaco pecatuac confesioan garbitzeco ta quentzeco Jaincoa gandic bear degun arrazoibideren batez bérac gorrotatzea gauza chit bearra izanic, vicioan sartutaco aur gasoai au adieraguiten, chit gaitz dan; eta

ona emen confesoreen neque ta estutasunac. Au ecusiric, ez naiz miresten Santu batec *(San Vicente Ferrer zala deritzat)*, vicioren batean sarturic egongo zan gaztecho bati esan izateaz: *Jaincoac gorde zaitzala* gaztetasunean illtzetic. Aditu diot confesoreari; iñoiz edo berriz norbaiten salvacioaz etsi izan bazuan, aurreneco Comunio sagradua artu baño lenago beste edoceñ pecatari beceñ gaizto ta galduac izan ciran gazte ayenaz izan zala.

Azquenic, bada, ene seme laztánac, pecatuaren leice izugarrian ondatu etzaitezten, eta areistian esan ditugunen, ta beste ascoren zori gaiztoan erori etzaitezten, saya zaitezte aurcho gaiz̃oac pecatutic gorde citecen, Aita San Agustiñ-ec oraiñ dala milla ta gueyago urte eracusten cituan, ondorengo conseju ta avisoac beti gogoan erabilli, ta bérac eracusten dizutena eguitera.

LEMBICICO AVISOA.

Gucietan lenena da; *Jaincoa gauza gucien gañean amatzea.* Au da, ene mutillcho maitagarriac, aviso gucien avisoa eta Jaincoaren lenengo aguindu edo mandamentuetan andien ta lenena. Ala eranzun zuan Cristo gure Jaunác legucaren jaquintsu batec galdetuta, San Mateo Evangelistac esatén duan becela (*Matth.* 22, 35). Amatu bear dezute, bada, Jaincoa ceron anima guciaz, ceron adimentu guciaz eta ceron aleguin guciaz; bai berác ala aguintzen dualaco, eta bai ceren aguindu au ondo betetzen badezute legueác aguintzen duan gucia eguingo dezuten, ceña dagoan gauza gucien gañean Jaincoa amatzearen, eta Jaunaren amorez progimoa amatzearen mandamentu bietan bacarric sartua: bada ecusten dezuten progimo au

amatu gabe, ecusten ez dezuten Jaincoa amatzen dezutela, gaizqui esango cenduquee, San Juan Evangelistac eracusten digunez *(1. Joan. 4, 20)*.

Zuec gauza bati beguiratzea nai det, eta da, *adimentu guciaz Jaincoa amatzea* cer dan, *ote daquizuten?* Estimacioa ta amorioa vorondatearen eguitecoac dira; ¿cer esan naico du, bada, *adimentu guciaz Jaincoa amatzea?*..... ¿Badaquizute cer? Esan nai du, bada, Jaincoa ondasun maitagarri bat, eta bera gatic ecin gueyagoraño ondasun preciotsubat dan becela, baña aŕ preciotsua, non ez guizónen, ez Aingueruren adimenturic dán eta izan ere ditequean gauza estimagarriagoric ezagutzeco diña, Jaincoa bera dalaco ondasun gucien ondasuna eta ceru-lurretan dauden gauza guciac beren ontasuna bacarric bera gandic dutena; berá ezagutzen duan adimetuac ipiñi beardiola biciro vorondo-

teari Jaun au ecin gueyagoraño maitagarria becela, eta ala munduco gauza guciac batean baño gueyago estimatu bear duala. Orra cergatic San Ligorio doatsuac añ viciro deadar eguiten zuan, esanaz: *Gal dedilla gucia, Jaincoa galdu baño len; eta gogoan jo dedilla edoceñ, Jaincoa gogoan jo dedin baño len.*

Amatu bear dezute ere *gauza guciac baño gueyago*; diran guztiac Jaincoác eman dizquitzutelaco, berari amorio au izan deguiozuten: alatan non ecerez-etic berác eguindaco gauza guciac dagozquitzute, itzic eguin gabe bederic, beren guisara esaten, neri ta beste guciai becela: *Artu gaitzatzute Jaincoác guzaz eguin dizuten doai bat becela, erregalo bat becela; emanguiozcatzute bada esquérrac mesede andi onegatic, eta ¡zori gaiztocoac zuec, baldiñ onela eguiten ezpadezute!* Au onela izanic, erraz ezagu dezaquezute,

Jaincoa baño beràc eguindaco gaúzac gueyagoan iduquitzea gaiztaqueri izugarri bat litzaqueala. Au chit arguiro ecusico dezute cerongandic aterataco comparaciocho onetan. Esadazute ¿chit estimatzen ezditu zute ceron gurasuac? Nola ere estimatzen ditugun, ta ecin gueyagoraño alere, eranzungo didazute. Baldin berriz galdetzen badizutet: ¿eta cer dala bide? Gure gurasoac diralaco, ostera eranzungo didazute. Eguia diozute, nic esango dizutet; baña beguirozute, beren gurasoac ganaco aurren amorioa jatorritic bertatic sortzeaz eta etortzeaz gañera, jatorri oni Jaincoac amorio au josi diolaco, aúrrac beren gurasoac gandic artù dituzten on eta mesedeetatic sortzen eta etortzen dala gueyena. Duten izatea Jaincoaz urrena gurasoac gandic artu duten becela, arrazoi ta bidea ceña gatic Espiritu Santuac eracusten dien *(Eccli 7, 30)* esanaz: *Gogora zaitezte nola, bal-*

din zuen gurasoac gatic izan ezpalitz munduan egongo elziñaten, eta ezagüera onequin biur zaizquietzute beren on-eguiñac; eta mesede onezaz gañera beste chit asco, chiquiagoac bederic, artu dituzten becela, nola diran jan edo alimentuac, eta arropa edo soñecoac, aciera ona eta eman lizayequeen, gañeraco gucia, aúrrac beren gurasoai dien naitasuna guciz bigun ta biotzeticacoa izatenda, abec ayei diena oraindie garbi ta biciagoa dan bitartean, alatan non, gurasóac nai edo ez becela amatzen dituzte beren aúrrac gaiztoac izana gatic; Evangelioco seme galduaren aitari guertatu citzayon becela, ceña, seme arc aimbeste bat naigabe eman izan baciz-can ere, biotza bigundu ta samurturic gueratu zan bere hura aŕi egoera negargarrian ecustean; laztandu zuan, berriro jantzi zuan, aren damutasun ta echeraco etorrera zala bide gombit andi bat emanaz.

Oraň bada, baldin ¿uen gurasoac aň maite badituzute, bérac eguin dizquitzuten mesede asco ta ónac gatic, mesede abei aimbeste bat beguiratu gabe, baicic bacarric nolaco vorondate eta gogo onaz eguin dizquitzuten, conturatuta ¿ceň maite izan bearco eztezute guraso beroc eman dizquitzuten, zuen Jainco ta jabea, beren bidez aimbeste mesede ta aň andiac arciñitzaten, Jaunaren zuec ganaco naitasun ta vorondate ona onela zuec obeto baño obeto ezagutzea nai izan zualaco? ¡Ah ene semechoac! baldin gauz abec maiz eta arretaz gogoan erabillico bacinduzte, segurunago, etziñatequeela izango Jauna ganaco esquer gabeac, araco jaten diardutenean iñoiz ere beguiac lurretic goratzen ez dituzten, eta jaten ematen dienari beren ezagüera ona aguertzeco beguiratzen ere eztien, abereac becela bici diran ayen guisa; baicic izango ciñatequcela guciz es-

quer oneco ta amoriotsuac, aimbestebat Santu ta Santa, zuen quideco ere, izan diran becela, ceñac Jaun au bere ontasuna gatic bacarric beren animaco ta biotzeco indar ta aleguin guci guciaz estimatu ta maite izan zuten, nayago izanaz beretaco ascoc galdu beste gauza guciac, beren bicitzarañoco guciac, pecatu mortal bacar batequin bera ofenditu baño. Onetaraco gogora zaitezte San Justo ta San Pastor gure Españia-co Alcala-co semeaz, ceñac lenengoac zazpi urte, ta bigarrenac bederatzi baño etzeuzcatela, Jaincoa gauza gucien gañean amatzen ta estimatzen zuten siñalez beren gustoz martirio izugarri asco, eta azquenean heriotza bera, sufritu cituzten. Abec cirala, bai, amatzalle eguiazcoac..... ¡ta ceñ gazteric! Beti gogoan iduqui itzatzute gazte abec, nola ta araco nescach gazte aren ejemploa, ceñaz *Ceruraco bidea* deritzan liburuac dacarren Ma-

ria-ren illaren amaicagarren egunean iracurtzen dan ecen bacarric Jaincoaren amorioaren indarrez ill zala, araco aurcho Jesus-ec bere Ama guciz Santaren besoetan etorriric, ea maite zuan, eta asco maite zuan, galdetu, ta eranzun cionean: *Maitè zaitut nere burua baño gueyago, gauza guciac baño gueyago, esan al baño gueyago, eta aimbesteraño, non bacar bacarric biotzac aguer lezaque cembateraño*; onela amorioaren indarrez biotza erdibitu ta illa arquitu zuten eta guero biotzaren pusca bacoitzean hitz ayec urrezco letretan escribituac ecusi ciran.

BIGARREN AVISOA.

Bigarrena da: *Mundu onetan dago gauzaric preciotsu ta valioric andieñe Jaincoaz urrena, gure anima dala,* p satzea. Aviso onen eguiatasun ta valio dia chit ondo ezagutuco dezute, ene n teac, baldiñ anima cer dan, eta animare zat Jaincoac eguin dituan gaúzac cer nolacoac diran pisca bat beguiratzen dezute. Gure anima, Aingueruen urre da Jaincoaren escuetatic irtendaco ga gucien prestu edo nobleena eta gucien reguiña edo gucietan lenena. Bai, ta chit ondo ezagutuco dezute, baldin be ratzen badezute nola Jainco gure Ja Ceru-lurrac eta béretaco gauza gucia cer-ezetic eguiteco, Escritura sagrad dion becela *(Gen.* 1.*)* beste gauzaz val etzan, ezpada bacarric itz onezaz, *Eg*

bedi; bañá guizona eguiteco, Trinidade chit santuco iru Persónac jardun ciran lan onen gañean, esanaz: *Eguin zagun guizona guere antz-irudira.* Jaincoac guizona lurreco autsetic eguiñ eta onen arpeguiaren gañera bere arnas edo *bicitzazco espiritua* eman edo bota eta guizona biciric ta arrazoi ta ezagüeradun animarequin gueratu zan. Emendic ezagutzen da, eztala gure anima gai edo beste gaucen batetic aterea, ezpada Jaincoaren beraren barrundic gure arnasa gure errayen barrumbetic datorren bécela. Eguin zuan, bada, ecer-ezetic beraren antz-irudira. Jaincoaren anz au aguiri da arguiro gure animan, batez ere anima au ecusi eta icutu ecin ditequean espiritu bat izatean; iru almen edo potenciaz orobat apaindua izatean, nola diran, adimentua, ezagutzeco, memoria, igarotacoa gogoratzeco, eta vorondatea, amatzeco; eta beste creatura

gucien gañean escubide ta jabetasun bat eman izatean, diran gucien gañean oso ta betea, ta guizonaren malla andi ta goratuaren siñalea becela izango zan escubide ta jabetasuna, baldiñ onec Jaincoaren aguinduai obedituaz, bere sortzetic eman cion garbitasun edo gaitzgabetasuna gorde izan balu.

Onequin ezagu dezaquezute, eztala mirestecoa Aita San Bernardoc añ prestutasun ta nobleci andiaz arrituric, guizonaren animari berari galdetzea ta esatea: *¿Cer gauz andiagoric eman ceguizuquean cere Eguilleac beraren antzera zu eguitea baño? Gogora ecartzu, bada, arretaz zure gauzaric ederren au, eta ezagu zazu ceregan Trinidade chit Santuaren antz-irudi au (Ser. 67. de inter. dom. apud Lhoner). Etzaitzala, bada, arritu izárren altutasúnac, ezta ere itsasoaren ondarraren osiñac,* deadar eguiten zuan

Sevilla-co arzobispo San Isidoroc, *sar zaite cerorren barrumbean, eta arritu zaite ondo beguiraturic, al badezu, cer ceran, eta zugan cer dagoan. (Lib. 1. de sum. bon).*

Baldiñ onezaz gañera gure animetaco bacoitza zaitzeco Jaincoac bere gloriaco Aingueru bat nola siñalpenetu duan, beguiratzen badezute, gure bicitza labañcorreco pausoetan gorde gaitzaten, ¿deadar eguin bearco eztegu, egulaz andia dala anima onen prestutasun ta noblecia, Ceruco gloriaco Principe bat lagun ta gordetzalletzat emateraño Jaincoac honratu nai izan duan ezquero? Uste det onetan dudaren arrazaric eztagoala.

Bañá oraindic arrazoi ta bide gueyagorequin ecusico guera beartuac au esatera, baldin Jesucristo Jainco biciaren Semeac gure anima chit noblea erredimitzeco eta gure lenengo gurasóai eraguindaco peca-

tuarequin demonioac itsusitu zuan, Jaun beraren imagiña berritzeco bere odol chit preciotsua nola iſuri zuan, gogora ecartzen badegu. Onetaraco Aita San Juan Crisostomoc galdetzen zuan: *¿Zure animaren valioa jaquin nai dezu? Beguirozu*, esaten zuan, *nola Aita Eternoaren Semeac anima ori demonioaren ta pecatuaren mendetic atera nairic, beraren ordañ edo valiotzat etzuan eman, ez guizona, ez lurra, ez ichasoa ta ez mundu gucia ere, ezpada bere Odol chit precioso guci gucia. (Homil. in Psalm.* 48). Onegatic deadar eguiten zuan San Pablo apostoluac, chit garesti erosiac izan guiñala: *Empti estis pretio magno. (1 ad corinth.* 6. 20*)*. Beraz ecusten dezute, seme maiteac, cembat ceron anima estimatu bear dezuten, eta bera galeraci leguizuqueen gauza gucietatic gordetzeco, een contu eta arret andia ipiñi bear dezuten. Jaincoaren antz

edo ichura añ prestua dan ezquero, ta berác añ maite duana, bear ez dan gauzaric berarequin eguiteaz, contu: beguira, contu, ez daquizuten guertatu Tesalonia-co gendeai igaro citzayena. Abec Teodosio emperadorearen ichura edo imagiña bat era gaizto ta bear ez becelacoan erabilli izan zutelaco, Emperadore arc alaco deshonra ta lotsagabequeriaz aserreturic, ciran guciac canibetaz igaro citzatela, bere soldaduai aguindu cien. Ala bada, zori gaitz ta desgraci añ anditic libra gaitian, ene semeac, esango dizutet beñ ta milla bider Espiritu Santua-ren sentenci hura: Seme, saya zaite core anima salvatzera, eta bera, mereci duan eran, honratzera, *Filii, serva animam tuam et da illi honorem secundum meritum suum.* (*Eccli* 10, 31). Bera gatic, baldin iñoiz edo berriz norbait badatorquizute, Jaincoa-ren legue santuaren contracoa ta bera ofen-

ditu gabe ecin eguin ditequeana dala gutzen dezuten cerbait zuei eraguit esayozute San Ligorioc dionez Aita S Benedicto XII garrenac, berác ecin e cezaquean gauza bat escatzera etorri zayon Erregue baten mandatari edo duari esan ciona: *Esayozu cere nagu ecen baldiñ nic anima bi banitu, gatic bat galdu, ta bestea neretzat g nezaqueala; baña bat baicic ez iduqu (ceña ecin dezaquedan, ta nai ere dan galdu), ecin dezaquedala eguin b escatzen didana. (Prep. para lamu com.* 12.)

IRUGARREN AVISOA.

Irugarrena da: *Maria Virgiña chit Santa, Jaincoaren Ama becela, biotz guciaz amatzea, eta egun gucietan berari servitzu ta bere gogoco gauçen bat eguiñaz erregutzea, ta beraren amparopean jartzea.* Bai, ene maitéac, biotz guciaz amatu bear dezute Maria, alde ascotara maitagarria dalaco. Amatu bear dezute, ceru-lurretan dan ta ditequean creaturaric maitagarriena dalaco. Bera da gucia ontasuna, ta gucia erruqui utsa; gucia edertasuna; baña ez griña gaiztoac iracequi eraguiten dituan, ta gaur chit argui eguiten duan, ta bigarco itzalia dagoan edertasun bat; ezpada edertasun bat gucia cerucoa, aingueruenari eraguiña, gucia jaincozcoa. Da ceruco ta lurreco eder-

tasun guciac beregan daucatzian edertasun bat; animaren edertasuna, virtute gucien edertasuna ta doai gucien edertasuna daucatzian edertasun bat. Orregatic deitzen dio Espiritu Santuac gucia eder ta mancha gabea. Ederra da ta pollita, *dio Maria-ren devoto andi batec*, sortiz edo naturalezaren edertasun guciaquin, graciaren guciaquin ta gloriaren guciaquin.

Amatu bear dezute ere zuec chit maite zaituzten zuen Ama au Aingueru ta Santu guciac chit maite duten zuen Erreguiñ ta Amandre au zuec gatic erreguca dagoan zuen bitartecoa dalaco, eta Jaincoari orrequin emango diozuten atseguiña gatic, Jaun onec chit nai dualaco señora au amatua ta erreverenciatua izatea, bere Alaba maitea, bere Ama laztana ta bere Esposa jaincozcoa dalaco, ceñaren gañera Jaun onec bere amorio jaincozcoaren be-

tetasuna isuri zuan. ¡Cer bide ta motivo indartsúac abec, batez ere azquenengoac, biotz guciaz Maria amatzera zuec beartzeco! ¡Ah ene seme maiteác, baldin Maria-ri zor diozuten devocio ta amorioa zuetan piztu eraguiterañoco zori ona banu, Toledoco Arzobispo San Ildefonso batec, Cantorberi-co Arzobispo San Anselmo batec Claraval-co abade San Bernardoc, Cardenal San Buenaventura batec, San Ligorio Obispo batec..... izqueta guciz indartsu, eztitsu, gozo ta zoragarri batequin eguiñ izan zuten becela! ¡oh cembat gauza gueyago esango nizquitzutedan Ama maite au asco ama dezazuten, ta berari chit jayera andia deguiozuten! Beguirozute, semeác, esango nizuquee, beguirozute Jaincoaz urrena Maria chit Santa dala munduan dan obraric osoen, obeen ta ederrena. ¿Jaincoác eman dien ontasuna gatic amatzen ezditugu mundu onetaco gaúzac?

bada ¿cenbat maiteago izan bearco ezteg
Maria, Jaunàc eguin dituan gauza gucie
tan ónena ta ederrena izanic?

Eta eraguiten die ontasunean Jaincoa
ecer-ezetic eguindaco gauza guciai ez
ècic creatura útsen artean izan ditezque
an guztiai ere, alatan non Jaincoac Mari
ecer ecetic eguiñaz, bere al-izate jaincoz
coaren esportzuric andiena eguin zuala,
dio Señeri veneragarriac. Chit ondo eguin
cezaquean Jaincoac; ta oraĩ ere, nai ba
lu, eguin lezaque, ceru aberatsago ta izar
rez apainduago bat, eguin lezaque itsas
lucean zabalago bat, lur eder ta landare
ta lorez apainduago bat, frutaz, urre, ci
llar, arri preciotsu ta beste ondasune
aberatsago bat; ez ordea Maria baño Ama
garai ta obeago bat. Nondic ondoretzen
dan ecic Jaunaren Amaren icen chit ado-
ragarria Mariagan perfeciozco itsaso on-
do ta bazter gabea dala, eta perfecio añ

andi ta goratuzcoa, non, bacarric Jaincoac berác ezagutu ta neurtu litzaque, San Bernardino Sena-coac dionez. Beguirozute, bada, Maria biotz gucitic amatu bearco ez dezuten, eta ceron buruac beraren amparopean egun oro ipintzea ta beraren gogoco cerbait eguitea, gauza justu ta bidezcoa eztan.

Beguira, ene semeac, ceruan diran Santu ta Santa guciac Mariaren guciz devoto izan ciran, berari amorioaren siñale maitagarriac ematera guciac aleguiñaz sayatu ciran. Eta egui au ondo ezagutu dezazuten, ezdizutet itzeguingo San Juan Evangelista batez, ceñac, Jesucristoc gurutzetic Ama gozo au bere contura utzi cion ezquero, bere jatorrizco ama izan balu baño amorio, naitasun ta biguntasun gueyagorequin honratu ta servitu izan zuan; ez San Dionisio, San Pabloren dicipulu artzaz ere, ceñac, Ama miragarri au beñ

ecusi zuan ezquero fedearen argu
iduqui ezpalu, Jaincotzat adoratuc
Ezta Toledo-co arzobispo San Ild
batez ere, ceñac, Ama gozo onen e
artu zuan cerutic ecarri cion casulla
erregalo estimagarría. Ezta San Ju
masceno batez ere, ceñari Empera
hereje baten aguinduz escuico escua
qui edo mozturíc, Virgiña Soberana d
glorien ta horaren gordeera edo defe
berarequin escribitu zualaco, Virgiña
ronen bitartecotasunez ostera lengo es
biurtu, edo len becela gueratu citzayc
Ezta San Bernardo batez ere, ceña Ar
gozatsu onec añ maitatu ta gozarotu zua
Ezta San Simon Estok carmelita batez ere
ceñac escapulario santua bere salvacioa
ren siñale edo prenda segurutzat Ama laz
tan onen escutic artu zuan. Ez Santo Do-
mingo batez ere, ceñari, gaitz gucien er-
remedioa becela, Errosario santuaren pre-

dicu edo eracustea Ama gozo onec bere contura utzi cion. Ez San Pedro Nolasco batez ere, ceñari, fedegabeen mendean presondeguietan catibu ceuden cristauac libratzea encargatzeco, Virgiña chit Santa berá aguertu citzayon. Ez San Cayetano batez, ta San Felix Cantalicio-co batez ere, céñac, Jesus ona bere Ama jaincozcoa gandic beren besoetan artu zuten. Ezta San Luis Gonzaga ta San Estanislao gazteaz ere, céñetatic lenengoac, Madrid-en cegoala, Jesus-en compañian sartzeco conseju edo avisoa Mariaren imagiña bategandic artu zuan; ta bigarrenac berriz bere heriotzaco orduan beraren anima errecibitzera Ama gozo au berau cerutic jestearen suerte paregabea izan zuan. Ez San José Calasanz batez ere, ceñac Ama maite au bere Seme jaincozcoarequin batera bere escolaco mutilchoac bedeincatzen, ecusi zuan. Ezta San Ramon Nonat

batez ere, ceña, Mesede-co erlijioco habitua artzera, Barcelona-ra berác bialdu zuan. Ezta Santo Tomas batez ere, ceña, guztiz aur zanetic..... Añ guchi..... Ez nuque bucatuco. Bacar bacarric esango dizutet, iracurri ditzatzutela San Ligorioc (ceñari ere, predicatzen cegoala, Ama ezti au aguertu citzayon) escribitu cituan, *Mariaren Gloriac*, edo ta *Maria-ren Anuario* edo urteco egun gucietaracoa deritzan liburu chit devotoa, eta an arquituco dituzute iruroguei ta amar ta gueyago ejemplo, ta oracio ta devociozco jardunbide, ceñaquin Jaincoac maiteena izan dituan Santu eta Santac dembora gucietan Maria gana bide eguin, bera billatu ta horatu duten. Orregatic ere capitulu oni azquena eman baño len nai dizutet contatu guertaera miragarri bat, ceña Mariari chit jayera andia cioten bi mutillchorena dalaco, zuen chit prochuraco izango dala, deritzat.

Bernardo Morlas doatsu Santo Domingoren ordenaco erligiosoaren bicitzan iracurtzen da, ecen Portugal-co Santaren-go comentuan sacristau cegoala, bi mutillchori escola eracusten jardun oi zala, céñac ere Aita Santo Domingo andiaren habitua beren devocioz jancitzen zuten, baña batez ere Jaincoaren beldur santua ematera, ta Jesus-equin Maria-ren devoto eguiazcoac izaten eracustera sayatzen citzayela. Ascotan guertatzen zan mutillcho ayec, bere besoetan Jesus ona ceucan Maria-ren imagiña baten aurrean gosaritan ceudela, aur Jaincozcoa beren gosariaz gombidatzea, eta Virgiña chit Santác aur au bere besoetatic erastea, mutillcho garbi ayen gosaritic jan cezan. Mutillchoac beren maisu Bernardo doatsuari, cerguertatzen citzayen contatu, ta onec eracutsi cien, esca ciezatela aurcho jaincozco ta bere Ama chit Santari, gonbida cit-

zatela bérac eta beren maisua ere beren ceruco Aitaren echean. Alaše eguiñ ere zuten; eta andic iru eguneraco, (ta zan bere ceruetaraco igoera gloriosoa ceruan celebratzen zan eguna) gombidatuac gueratzen cirala, Jesus onác eranzun cien: eta orra nón egun artan irurac meza santua enzun ta comunio santua errecibituaz fest andi hura celebratzeco prestaturic, Jaunari graciac eman ciozcatenean, virtute andian ill ta beticetasun gucian gloriaco gombitaren gozatzera igaro ciran. *(Diar. dom. die 7 Maii).*

¿Ez dacusute, ene maitéac, nola Jesusec eta Mariac beren devotoai eranzuten dien? Ama zazute arren Maria chit asco; beguirozute berá dala ama gucietan ónena, eta ama on batec bere semea galtzen ecusi eciñ duan becela, Mariac ere naico eztu gu galtzea, baldiñ berari biotzetic deitzen badiogu; jarri zaitezte, bada, be-

raren contura; eguiozute egun gucietan bere gogoco gaucen bat, eta beraren bitartecotasunez irichico dezute, seguru alere, Jaunaren amorioa bicitzan; ta ill ta ondorean izango cerate oraindic obeto pagatuac ceruan. Onetaraco erreza itzatzute liburucho onen azquenean arquituco dituzuten, cristauaren egun oroco ejercicio edo goiz-arratsetaco oracioac: béretan arquituco dezute Maria chit Santari eguiten zayon oracio eder *O Virgiña ta Jaincoaren ama etc.* esanaz asitzen dan hura; eta encargatzen zaituztet, oracio au debocioz erreza dezazutela iru *Ave Mariare-quin* batera beraren garbitasunaren erreverencian, eta egunean noicic beñ errezatzen badezute ere, eguiaz esaten dizutet, etzatzutela damutuco. Sayatuco cerate gañera Ama maite au egun oro honratzera errosario santua errezatuaz, bere cofradiren bateco escapulario santua jantziaz, ordu-

aren jotzean *Ave Mariarequin* agur eguitea iñoizcho ere utzi gabe. Lenen lenena sayatu bear cerate bere virtuteac imitatzera, bere garbitasuna, bere humiltasuna, urco edo progimoa ganaco caridadea, eta oraindic gueyago Jaincoa ganaco amorioa, confesioco ta comunioco Sacramentu santuac maiz, ta batez ere Ama maite onen fest-egunetan artu edo errecibitu ta amorio au iracequitzera sayatuaz.

Liburu on ascotan arquituco dituzuten beste asco devocio eguin zayezquietzute; baña orregatic ere contuan ipiñi nai zaituztet, ecen devocio aben auqueran iduqui bear dezutela gogoan Santa Teresa Jesusen conseju hura, au da: *Nola-nai eguindaco devocioetatic Jaincoac libra gaitzala, (Vida de Santa Teresa, c. 13. num. 12.)*, esan nai det, igues eguin bear dezutela oracio gueyegui ta ecin jaso al aña ceron contura artzetic, eta oraindic asco

gueyago guciac eguin nai izatetic, cembaitec nai oi duten becela, céñac ozta jaquiten dute Virgiña chit santa honratzeco modu edo oracio berriren batzuec irtendirala, non berealaše guciac eguin nai lituzqueen. Ez orrelacoric, ene maitéac, orduan ala-baña batere eguingo etzenduquee. Oracio ta devocio aben auqueran chit beguiratuac bear cerate izan, eta baldin utseguin nai ezpadezute, sinis nazazute, galde zayozutela ceron confesoreari, eta eguin bear dituzutenac esleitu ta bérac eguiteco asmoa beñ artu ezquero, eguiñ itzatzute leyalqui ta zabartu gabe, ta seguru bazautezquee, atseguiñ gueyago emango diozutela Mariari ondo ta utsune gabe edo beti eguindaco devocio batequin, naiz chiquia izan dedilla, nola-nai ta devocio gabe, ta beñ artuaz ta beñ utziaz eguindaco asco ta andiaquin baño.

Ceruraco bidea deritzan liburuan Maria-

ren illaren bian iracurtzen da, ecen batec egun oro iru errosario oso eri zen cituala, baña epelcho ta devocio choarequin, eta orregatic Virgiña chi tac erriertan eman ciola, esanaz: *Ne det errosarioaren irugarren parte b carra erreza deguidazun, baña arr contu gueyagorequin.*

LAUGARREN AVISOA.

Laugarrena da; *Iñoiz ere pecatu mortalic batere ez eguitea; baña baldiñ ala zori gaiztoan eguiten bada, conciencian ez iduquitzea, baicic pecatu arzaz ondo damutzea, eta Jaincoari barcacio egun gucietan escatzea.* Eguiaz, Jesucristo-gan ene seme maiteac, pecatu mortala gandic sugarrasta bategandic becela igues eguin bear dezutela, dio Espiritu Santuac (*Eccli.* 21, 2, 3, 4); ceren baldiñ bera gana alderatzen bacerate, elduco dizuten; beguirozute, aren órtzac leoyarenac becelacoac dirala, anima iltzen dutenac; eta becatu mortala dan gucia au bico ezpataren guisacoa dala, ta bere zauri edo heridac guizónen erremedioz eciñ senda ditezqueanac, dio Espiritu Santuac berác.

Orretaraco chit jaquiñaren gañean egon bear cerate ecen bacarric pecatua dala gaitz izugarria, eta Jaincoari bildur ta amorio bear diozutela, pecatu eguiñ ezquero infernuarequin castiga zaitzaqueelaco. Emendic erraz ezagutuco dezute, jaquiñaren gañean, edo ezaguerarequin pecatu mortal bat bacarra eguitera baño iltzera ere milla bider lenago jarri bear ceratela.

¡Ay ene semeac, baldin pecatu mortal bat bacarra ta bere ondoreac cer diran, ezagutzen bacendute!..... Beguirozute, eztagoala berarequin berdin litequean bidutzi, mostru edo gauz itsusiric..... Ecarzute gogora pensa al cenzaqueen munduco gauzaric izugarriena, eta pecatu mortala cerdan ezagutzetic chit urruti gueratuco cerate beti. Ipiñi itzatzute batean munduaren asieratic mundu gucian izan diran gaitz guciac, izurri edo peste guci-

ac, guerra guciac, gosete guciac, ecaitz eta tormenta guciac, gaitz guciac ta guizona atsecabez betetzen duten beste aimbeste ta aimbeste naigabe ta laceria; eta arquituco dezute, au gucia ondar-alecho bat baño ascoz guchiago dala pecatu mortal bàcar baten izugarritasun andiaren parean. ¿Nola diteque ori? esango didazute. ¿Nola? Au nola ditequean, arguiro dago: ceren pècatu mortalác, Jainco neurri gabe bati berari eguiten zayon irañ ta ofensa bat dan becela, gaiztaqueri neurri ta muga bague bat daucan; eta bera gatic beste gaitzen aldean guciac baño pare gabe andiagoa, alaco moduz non, esan diran gaitzac asco milla bider andiago eguingo balira ere, gaitz azquendunac eta beragatic gaitzac ezpalira becela izango liraque pecatu mortalaren anditasunaren parean. ¿Nola aimbeste pecatu eguiten dira bada? galdetuco didazute. Eguiten dira añ asco,

eranzungo dizutet, ceren guizónac cer eguiten duten beguiratzen ta consideratzen ezduten, eta ascoc au consideratu nai ere ezduten, quezca guchiagorequin ta errazago pecatu eguiñ al izateco; eta emendic guero gaiztaqueria ura becela edan, ta oraindic ausardi andi ta lotsa guchirequin galdetzea ¿cerda, bada, eguin deguna? Igues eguizute bada, Jesucristogan seme maiteac, pecatu mortalagandic urrutira oraĥ iracurri dezutena gatic, eta galtzeco jarrico ciñatequeen arriscu ta perilla gatic. Beguirozute guerta eztaquizuten len conciencia chit garbi gorde zuan zori gaiztoco gaztecho bati igaro citzayona, ceñaz Aita Siñiscalquic dion *(Cuares. serm. del pec. mort.)* ecen beste gaztecho batec pecatu loy izugarri bat eguin zuala, adituric, berác ere eguin nai izatearen argaltasuna izan zuala; eta orra non supitoan illotzic erori, eta infernuco su

beticoan ondatua izan zan. ¿Ecusten dezule non gueratu zan? Jaincoa gatic arren, semćac, zaute ernai. Seculan ere pecatu mortalic batere eguiñ ez dezazuten, bada, ecartzute chit sarri gogora, eta ceron buruai esaguiezute: *Beguira Jaincoac ecusten zaituala; beguira lecu gucietan anche dagoala; toqui gucietan; naiz lecuric gorde ta illunenetan escuta zaitiala, beguira dagoquizula;* bera gatic nere edo beste personen baten aurrean gaiztaqueri bat eguitera atrevituco etziñateqüeen becela, eta Erregue bat bera beguira dagoquizutela ofenditzera oraindic guchiago, zuei bicia quendu lizaizuqueelaco, ala gorde bear cerate heriotzatic becela Jaincoa ofenditzetic. Eta baldin norbait pecaturaco bide edo tentacio ematera baletorquizute, esan guiozute, Jaincoari beldur diozutela, eta guizónen pensamenturic gordeenatarañocoac berac ecus-

ten, jaquiten ta ezagutzen dituala.

Ez dezazutela itz gaiztoric batere esan; ceren Jaincoac lecu gucietan ecusten zaituzten becela lecu gucietan aditzen ere zaituzten..... eta baldiñ beste mutill edo guizónai itz gaiztoac aditu edo gauza lotsagarriren bat ecusico baciñieque, ez dezazutela iñolaco ere moduz ayec becela eguiñ; ceren arcaitz andi batetic bera edo putzu andi batera beren buruac amiltzen ecusico bacinduzquee, ayei jarraitu naico etziñiequien becela, beren ejemplo edo eracuste gaiztoetan ere ayei jarraitu edo ayec imitatu bear ez dituzuten.

Eguin bear dezutena da, beraquin ibiltzetic alde eguin, *Ave Maria purisima* esan, eta beraquin ez jocatu, ez jostatu ta ez itzeguiñ ere nai izatea. Onelacoaquin eguin bear dezute sarna, ezcabi edo beste gaitz itsascorren bat leucaqueanarequin eguingo cenduqueena berá. ¡Ah seméac!

baldiñ mutillcho ónac gaiztoac gandic izurri edo pestearequin dagoana gandic bëcela igues-eguiten balute, ez guenduque ecusico, ez, dacuscun beceñ mundu galdua..... Mutill gaiztoac ónen artean dira sagar ustelac becela, ceñetatic fiñ edo onen artean bat bacarra gueratzen bada, guztiac galtzen edo ustelzen diran. Bada esaera bat, diona: *Otsoaquin dabillenac marrua eguiten icasten duela.*

Bear bada esango didazute, bérac gandic oso aldeguiñ ecin dezaquezutela..... Badaquit joan bear ceratela escolara, nora era gucietacoac joaten bailiran; badaquit ere mutillcho pobre ascoc joan bear izaten dutela fábriquetara beren oguia irabastera, non aimbeste âmen aimbeste semé alcarganaturic, gauz asco ecusi bearrac ta aseo aditu bearrac izatendiran..... Eguiaz, au gucia badaquit..... bañ contuan ipintzen zaituztedan ezquero, ecus-

tea eztala beguira egotea becela, ezt
zea ere enzutea becela, bada batetic
tera chit bide lucea dago; esango diz
sarnoso edo pestedunac leudequean es
fábrica edo beste edoceñ ere lecutar
an bear baciñate, an eguingo cenduq
ena bera eguin bear dezutela. ¿Cer or
an eguingo cenduquee gaitza itsatsi ez
guiquezuten? ¿etziñateque sayatuco alba
bérac gandic aldeguitera, bérac icutuc
ta are guchiago escua erabillico etzindu
queen eran? Orra bada non daucazuten zu
ec eguin bear dezutena: alaco mutill gai
toaquin ez ibiltzea, beren laguntasun, a
disquidetasun ta izquetatic alde-eguitea
ceñac diran vicioen sarna zabaltzeco bide
ac, ta oitura gaiztoen izurri galgarriac.
Baña baldin beren artean iraùtera ta bi
citzera beartuac zautelaco, beren izqueta
ta beren erausi loy lotsagarriac aditu ga
be ecin bazautezque, jaso zazute sarri zu

en biotza Jaincoa gana, bere laguntza escatuaz ta Virgiña chit santari bere amparoa, berotasun ta devocio andiarequin agur eguiñ ta esanaz: *Ave Maria purisima.* Eguin bear dezute Israel-co erriari bere pecatu izugarriac gatic Jaunác eman nai cion catibueraz Profeta santu batec *(Barruch 6)* erri hura queinatu edo amenazatuaz ciona: *Beguirozute catibu eramango zaituztela Babilonia-ra non gauza nazcagarri ta Jainco guezurrezcoen adoracio asco ecusico dezuten; zuec saya zaitezte biotz guztitic Jaincoa bedeicatzera ta alabatzera, ceren bacarric berari adoracio ta bedeicacioa zor zaizcan.* Tobias gaztea erri guciz galdu baten erdian chit santu gorde zan.

Ecusten badezute, bada, beste mutillac gauza gaiztoac eguiten dituztela, conturaco, cerbait ostutzen dutela, edo alcarrequiñ aserre ta burruca edo arrica da-

biltzala, eta onela jostatuaz beren buruai ta besteai calte ta gaitz eguiten diela, gorde zaitezte béretatic..... nola ta araco beron guraso ta maisuai bear dan errespeto ta beguiramenturic ecartzen eztien, ta oraindic bérezaz irañ ta burla eguiten duten, ta bérac despreciatzen dituzten ayetatic; eta oraindic ascoz obeto elizaco gáuzaz burla ta farra eguiten duten edo elizetan batere beguiramentu ta erreverencia gabe dabiltzan ayetatic.

Zuec contrara: sinistu bear dezute oso, Elizan Jaincoaren echean zautela, ta huraše dala Jaunác berari erregutzeco ta bera adoratzeco autu nai izan duan lecua bera gatic an egon bear cerate beguiramentu ta devocio andiarequin, mutill on do aci ta erligio oneco batec iñolaco ere moduz eguingo ezdituan jostaqueta, eciñegon eta enredo gabe. Sayatu bear cerate José Oriol doatsuac becela eguitera,

ceñac Barcelona-co Santa Maria Ichasocoa deritzan elizan eliz-mutill cebillela, bere ibillera, eguiñera ta devocioarequin Apaizetarañoco guciai cer-icasiric asco ematen cien. Igues egüin bear dezute ere arretaric andienaz Jaincoaz ta bere Santu ta Santaz gaizqui itzeguitetic; bada onelaco itzac mutillen artean aditzeac izugorri-gaizto ematen du, eta onetaraco artuco dezute escarmentu edo ardur andiya bost urtetic sei bitarteco mutillcho bati guertatu citzayola, San Gregorioc dion guertaera onetatic. Dio bada aur au bere aitaren besoetan blasfemia edo itz gaizto izugarriac esaten ciarduala, demonióac andic artu, ta infernuco leizondarretara eraman zutela *(Dialogo* c. 18*)*.

Zaute contuan zuen quidecoen artean añ erraz esaten diran guesurraquiñ ere. Orretaraco gogora ecarrico dituzute chit sarri Espiritu Santuaren itz ayec, ceñen

cembat igueritan eguindaco, ta galeraci citzaqueanac ta bear cituqueanac galeraci etzituan pecatuac gatic condenaturic arquituco diran!..... Baña eta ¿itotzeco arriscúac? ¿eta arriscu artan jartzea? Chit ondo gogoratuco zaizquitzute ito izan diran asco. Baña vicio au utzi zagun, bada berriz diot, nere iritzian gorroto diozutela eta bera gatic Jaunari esquermilla emateu dizcat.

Baña baldiñ pecatu mortalean erortzearen desgracia bacendute, ez dezazutela iñola ere ceron conciencian iduqui, ez deguiozutela ere an egoten utzi, baicic berealaše confesa zaitezte, *eta damu zaitezte pecatu arzaz egun gucietan.* Peca tuaren contra eguin bear dezute (bada pecatua animaren gaitz ta heriotza da), gorputzeco gaitz gogor bat sendàtzeco eguingo eenduqueena bera..... Baldiñ, conturaco, beso bat edo anca bat ausico

balitzatzute, edo chit gaitz andi batequin baceundete, ¿cer ceren gaitz edo miñetatic sendatzeco eguingo cenduquee? ¿cer eguin bearco guenduque? Medicu edo barbero bati deitzea, gu sendatzera etorri dedin, ta cembat lasterrago ta nayago; eta baldin berealaze datorqueala ordu laurden bat luzatuco balu, sentituco guenduque. Orra bada zuec eguin bear dezutena animaco gaitza dan pecatua cerongandic quentzeco; laster ibilli, ta ez iñolaco ere moduz conciencian iduqui. Ondo daquizute ceñ gaiztoa dan: bera gatic beso ausiya osatzeco urteetan ichedongo etzenduqueen becela, ascoc beren animaren sendaeran eguiten duten eran, ez egunetan, ez erduetan, ta al balitz, minutuetan ere, baicic bereala ta cembat lasterrago aimbat nayagoco cenduqueen becela, chit arin ta laster ibilli bear cerate bere egoera negargarritic irteteco confesatzea ta

ñatzen dituzten guizagaſoac!.... ¡Ay, ceñ bildur izatecoa dan San Ligorioc dion gazte infernura joan zan ari guertatu citzayona bera igaro ez daquien! Dio bada Santuac, virtutearen sona andian bici zan guizon bat gaizqui confesatzen zala, pecatuac confesioan iſillic gordeaz. Bere azquenecco gaitzác arrapaturic, esan ciotela, *iltzeco* confesatu bear zuala. Apaiz bati deitu, ta au guelan sartu citzayoneco, esan ciola: *Aita, esan beza confesatu naicela; baña nic iñola ere confesatu nai estet. Beñ bacarric ere ondo confesatu ez naizelaco (bada Confesoreari pecatu guciac esaten ez nizcan)*; *oraĩ Jaincoac arrazoiz ta bidez alaſe erabaquiric, ez daucat ondo confesatzeco indar ta moduric, eta bera gatic condenatua nago.* Itz abec esan cituanean oju izugarri batzuec eguin cituan, chit ondo cezaqueanean pecatuac confesatu nai izan etzituan bere mingaña ma-

daricatuaz, eta bere anima demonioai eman cien, eta abec infernuan ondatu zuten. Bere gorputza icatz bat beceñ beltz ta chit quirastua gueratu zan, ceñác guciác orduan aditu ciran ots ta zalaparta izugarriaquin batera betico condenatua zala, arguiro adiraci zuten. Eta ala, mutillcho maiteac, pecatu eguiñ ezquero eztago ondo cofesatzea edo infernura joatea beste bideric.

Eguin bear dezute ere negar ceron pecatuaz, ta *damutu bear zatzute bérac eguiñaz egun gucietan.* Ara cer dion Espiritu Santuac *(Eccli* v, 5*)*: *Pecatu barcatuaren bildur gabe etzaitecela bici*; baña nola iñorc ere eztaquian Jaincoa-ren amorioa ote, edo gorrotoa mereci duan, orregatic izu ta icara larriarequin gure salvacioco lanean necatu bear guera, dio San Pablo apostoluac. Onec castigaeraguiten ta ecį eraguiten cion bere gorput-

za, besteai ceruraco bidea eracutsi ta guero bera condenatua ecusi etzediñ. Onegatic bear bada esango zuan David-ec, bere negar-malcoac egunaz ta gauaz oguitzat servitzen ciotela, eta edariarequin nastutzen cituala, pecatuarequin bere Jaincoa galdu izan zuala gogoratzean: eta egun gucian tristezaz betea, atsecabetua ta ecin gueyagoraño lurreratua cebillela, bere biotzeco damutasunaren indarrác oyusca ta lantu andiac eraguiteraño, bere gaiztaqueriac beraren buruari gañez eraguiten cielaco.

Chit garratz ta samiñac izan ciran San Pedroc ta Santa Maria Magdalenac bèren pecatuaz gogoratzean isuri cituzten negarmalcoac, Jainco gure Jaunác barcatu ciztela, bacequiten ere. Beticoac ta utsune gabeac izan ciran San Abrahan ermitaño baten, San Arsenio eremutar baten, Olimpiade ta Dominina emacume, chit santen

negar-malcoac. Eta ¿cer esango dizutet San Luis Gonzaga batec araco oraindic aurchoa zala, bere Aitaren soldaduai icasi, ta béren gaiztaqueria ezagutu gabe esan izan cituan itz modu batzuec bere Confesoreari confesioan aguertzen cizcanean eguiten cituan negárraz? Bere bicitzan iracurtzen da, ecen gucia aunatu ta aulduric confesorearen oñetan erortzen zala *(Seisena á San Luis)*. Eztago erremedioric, semeac, esango dizutet San Antonio Abadearequin *(Ros weid. lib.* 7. c. 38.*)*, pecatúac barcatuac iduqui nai dituanac, ta béretatic ondo garbitua izan nai duanac, negar-malcoen bidez irichi bear du, eta orobat aditu bear dezute virtutean aurreratu nai duanaz. Zuec esango dezute, ¿eta negar eguiten eztaquianác? eta biotz arria becela gogorra duanac? Beguirozute, itzetan orren irozcoitarrac izan bear etzerate; pecatuen barcacioa eta virtuteen aurrerapena ne-

garraquin iriehi bear ditugula, diodanean, eta ejemplo edo ispillu ayec beguien aurrean ipintzen dizquitzutedanean, ez det esan nai beguietaco malcoac dirala bearrac, ezpada biotzeco negar eta damutasuna; badaquit ala-baña malcoac isurtzeco dooya Jaincoaren gracia bacan bat dala, eta doai onen jabe Jaincoac ematen *diona*, ta ez besteric, izaten dala; baña badaquit ere biotzeco damutasun ta negarra orobat Jaincoaren doai ta erregalo bat dalaric ere, escatzen dionari ematen diola: ta orregatic esaten digu bere Profeten bidez, bera gana eguiaz ta benaz biur gaitiala, ta urra ditzagula, ez gure soñecoac, ezpada gure biotzac *(Joel, 11, 12, 13.)*. ¿Ecusten dezute nola gucia moldatzen dan, eta pecatu eguiñ ezquero gueron salvacioa izan nai badegu, pecatu arzaz egun gucietan negar eguin bear degula, ta damutu bear guerala, ceñ segurua dan?

BOSTGARREN AVISOA.

Bostgarren ta azenecoa da: *Ill bear guerala, eta heriotzaren ondorean edo betico infernuan demonioaquin, edo betico Jaincoaz gozatzen Ceruan Aingueruaquin, guc eguiñ izan degun onaren edo gaitzaren eran, egòn bearrac guerala.* Aviso au Espiritu Santuac Escritura sagraduan gùtaco bacoitzari ematen digun beste aren ondorea becela da: *Egun gucietan gogora itzatzu zure azquen-fiñac, eta èztezu iñoiz ere pecaturic eguingo (Eccli. 7, 40).* Sentenci au gogoan erabiltzea dala, dio jaquintsu batec, soberbiarequin invidiaren galera, gaiztaqueriren erremedioa, lujuriaren ayenatzallea, arroqueri ta andiustea ecer-eztutzen dituana, bicitza zucen baten oñ edo cimendua, santidadearen osagarria, eta betico bicit-

zaraco prestaera. Galdu etzaitezten, bada, beguira zaitezte ispillu onetan, ta bertan ecusi ta considera zazute, cer ceraten, eta cer izango ceraten.

¿Cer prochu eguingo dizute atseguincontentu, honra, empleo, ondasun ta aberastasunac? ¡Ay! ta ascori guertatzen zaye Evangelioco doacabe ari *guertatu* citzayona, ceñac bere buruari ciotsan *bitartean*: Nere anima, asco ondasun dauzcatzu, eta atseden zaite; jan zazu, edan zazu, eta bicitza on batera eman zaite urte chit ascoan; aditzen du orduan Jaincoaren itz hura, esaten diola: *Choro buru gabea, arrats onetan zoaz iltzera, eta ¿ceñenac izango dira zuc ceretu dituzun ondasun oriec guciac? (Luc. 12, 19, 20).* Beguirozute, ene maiteac; ill bear cerate beste guciac iltzen diran becela!..... sentenci ciertoa da..... gucioc joan bear de-*gu eternidadeco* echera..... ta illco gue-

ran egunean, heriotza gabaz datorren lapurra becela etorrico da. *(1 ad Thess.* v. 5.*)*. Usteric guchiena daucagunean etorrico da gure Jauna gu juzcatzera, ta gure obligacioac ondo bete edo eguin ditugun ecustera. Ernai egon bear guera, bada, noiz deituco gaituan eztaquigun ezquero, eta eguiñ bear degu familiaco aita batec bere echera lapúrrac gauaren cer garaitan sartuco zaizcan balequi, eguingo luqueana, au da, ernai ta contuan egotea, eta echea zulatzen eta alere guchiago barruna sartzen ez uztea.

Evangelio santuaren eracuste onec *(Math.* 24, 43*)* arguiro asco aguertzen digu ceñ ez-jaquiña dan gure heriotzaco ordua; eta baldiñ ez-jaquiñ oni gure bicitzaren ecereza egozten bazayo ¿cer izango da? Bicitz au añ ausicorra da, non gauzaric chiquiena deseguiñ lezaque, aice *gaizto batec*, piztiya pozoitsu batec, nai-

gabe batec, ecer ez batec..... Baña demagun chit lucea izango dala: edoceñ guizonen bicitzaric luceena aice ariñ batec betico ezcutatzen duan, ta doy doya aguiri dan lurruñ bat da: ala esaten du Santiago Apostoluac *(Jacob.* 4, 15). Guchi dira guizonaren egúnac, esaten zuan Job chit eraman andicoac *(Job* 14, 1, 2*)*, dembora labur batean bicitzen da, ta laceri ascoz betea dago. Laster ebaquia izaten dan lore bat becela jayotzen da, ta berealа cimurtzen da. Erreiñu bat becela dijoa ta ezcutatzen da, eta iñoiz ere estadu edo egoera batean eztirau. Baña ¿Nola egoera batean iraungo du, baldin bere egúnac zaldi azcar bat becela badijoaz, eta arrano edo aguílac béren salpill edo janariaren gañera datocenean baño ere ariñago egan badijoaz? *(Job.* 9. 25, 26*)*. Orregatic San Pablo apostoluac esaten zuan: *Quotidie morior:* egun oro iltzen

naiz. Baña heriotza añ laster etortzeari onec berequin dacartzian gaúzac egozten badizcagu ¡ay seméac, cembat izutzen duten! Nic asco ecusi ditudalaco illtzen, esan neguizuquee au.... baita ere santu bat becela bici izatea chit naico etzuquean iñori ere bere heriotzan lagundu eztiodala.

Eta ¿ill ta guero? ¡ay! animac gorputzetic aldeeguiten duan puntu ta lecu berean bertan bicien ta illen Juez goyen Jesucristoc juzcatuco du..... Eta juicioan aserreturic aguertzen danean ¿nor bere aurrean egon al izango da? Aita Luis Dupont-ec onezaz gogoraturic, bera cegoan guelari ere icara craguiten ciola, dio San Ligorioc *(Prep. para la muerte cons. 24)*; beguirozute cembaterañocoa izango zan bere bildurra. Ezta alabaña cer arritu Santu onec berác San Bernardorequin esateaz *(ibid.)*, ecen estutasun artan ecustèn diranean animac nayagoco luqueela

infernuan bertan egon. Orra bada emen cergatic Aita San Basilioc *(In Psalm.* 35*)* gogoracio oni anima bere neurrian iduquitzeco locarri eta frenu osasungarritzat becela beguiratuaz, deadar eguiten zuan esanaz: beguira, ene anima, pecatu mortalen bat eguitera tentatua senti cerane-an, gogora ecartzu, Jaincoac *artuco di-*zun contu estu edo eguingo dizun *juicio* izugarri hura, eta au bacarric ascoco da pecatutic atzeratzeco. Eta ¿juicio onec eracarrico dituan ondoreaz cer esango det? Anima juzcatuen obraquiñ berdiñ edo ayen eracoac izango dira: justuac joango dira beren obra ónaquiñ irabaci izan duten gloriaco coroa artzera, Cerura; eta gaiztóac beren pecatuac gatic mereci izan dituzten pena ta tormentuac padecitzera, infernura.

Baña baldiñ gure bicitza ceñ laburra, heriotza ceñ jaquiñ eta segurua ta bere

ordua ceñ ez-jaquiña, baña cierto ta duda gabe etorrico dana berari darraizcan, eta anima gaŝoari Jesucristoren tribunaleraño jarraituco dioten ondore tristeŝeago edo arincheagoaquin, ondo beguiratu ta onetatic beti betiraco datocen ondore añ desberdiñac consideratzera igarotzen baguera..... ¡ah semeac! ¡ónac izatera gu nuguitzeco, eta cercho bait costa bear balitzagu ere, ceruronz bide eguitera acullatzeco cer acullua! Pensatzen dedanean, zuentzat, neretzat eta beste gañeracoentzat nai edo ezecoa dala, edo cerura igotzea edo infernura amiltzea; eta bietaco batec guertatu bear duala, au da, edo beticò zorionecoac edo betico desdichatuac, sinis nazazute, izu gorria sartzen zadala. Eta eguiaz guchiago ecin nezaque, ceren ¿nor izutuco ezta besteric ez becelaco gauz oni beguiratuta? ¿Chiquia izango dala deritzatzute bear-gai bat ceñean

baitagoan beti betico gloria bat, edo beti betico zori gaizto bat? Beguirozute Ceruan atseguin contenturic andiena beticotasun gucian gozatzetic infernuan su-gar ta beste tormentu izugarrien erdian demonioaquin batera padecitzen ta amorratzen egotera, cembat dijoan! ¡Infernua!..... ¡eta beti betico infernua!.... ¡*beti beti*coa!..... ¡eta Jainco bat guciaren *justicia* zorrotzác prestaturic daucan tormentuzco lecu artan!.... ¡eta iñoiz ere andic irten gabe!..... !Oh eternidadea!..... Ene seméac, tormentuen beticotasunaren gogoratze onec Santa Teresari bost urtetic scira cijoala bere biotz beraan alaco mella eguiten cion, non bere anayacho batequin batean bere echetic irten, ta moroen lurrera abiatzera muguitu zuan, anche martirioa sufritu, ta onequin betico zoriona seguru ipintzeco ustean.

Ea bada, ene maiteac; onelaco zori gaiz-

totic ceron buruac libratzeco aleguin guci gucia eguizute: ez dezazutela eguin arren iñolaco ere moduz araco eguia izugarri abec sinisten dituzten bitartean, bérai onelacoric batere guertatuco ezpalitzaye becela bici diran gazte ayen guisa. Zuec, contrara, dotriña eguiazco aben siniste ta consideracioa gueyago ta gueyago bicituaz, ordu izugarri artan naico dezuten eran bicitzera saya zaitezte: etzaitzatela ejemplo ta eracuste gaiztóac eraman, ez dezazutela ere beren arroqueriaz casoric eguiñ. Bérac zuezaz burlatuco dira, barbull, ez-jaquin ta setatsuac ceratela, esango dizute; zuen chorotasun ta tolescabetasun engañatuaz erruquia aguertuco dute; lastima, esango dute, orrec.... bañ zuec eranzun guiezute, ceron barrumbean esanaz: ichodozute ordu estu artaraño, an ecusico dira zuen pamparreri ta ots arroac..... eta bitartean sari edo

pagu andi aren uste oso betearequin ala turic, oraĥ bicitz onetaco naigabeac pa ciencian eramatera saya zaitezte, esangc dizutet San Ligorio-requin *(Prep. para la muerte, consid.* 29.*)*, gure amorioz Jesucristoc eraman cituanaquin bat guciac Jaincoari ofrendatu edo esqueñiaz; gure dolore, naigabe, estutasun ta eramanquizúnac egunen batean aituco dirala, daquizuten ezquero.

Bay, Jesucristogan seme maiteac; baldin salvatzeco suerte ona badegu, gure tristeza guciac eciñ esan ditequeaneraño-co atseguiñ contentura biurtuco dira. ¡Oh! eta ¡cer alegria orduan!..... Urrutiratuco ditu Jainco gure Jaunác gure beguietatic negar-malcoac, ezta izango heriotzic, ezta izango miñic, ezta izango deadarric, ceren gauz abec guciac zori oneco lecu artatic urruti dauden. An atseguin-contentu garbiac baicic eztago, zori ontasun guciaren

lecua hura da; an Jainco, bere izatean añ neurri gabea becela, bere podere edo al izatean andí; obra ónac pagatzen añ ugaria becela, anima justuac añ maite dituan batec guciác bera dan gucia arpeguiz-arpegui bere esleituai aguertzen ta aben betico zori ontasuna eguiten edo izaten bere atseguin-contentuac dauzcatzî..... ¡Ah enc semeac¡ baldiñ Jaincoác bera amatzen ta servitzen dutenentzat prestaturic daucan pagu edo sariya cer dan ispillu batean becela beguien aurrean ipiñi al baneguiquezute... baña ¿norc, au eguin lezaqueala, uste izango du, San Pablo apostoluac atseguin-contentu ayezaz dionean, guizonác eciñ azal ditzaquean gauz ezcutu batzuec dirala? *(2 ad Corinth. 1, 4)*. ¿Ceñ mingañec iñoiz ere esango du, galdetzen du Aita San Gregorioc *(Hom. 37 in Evang.)*, edo ceñ adimentuc ezagu lezaque cembat eta ceñ andiac diran Ce-

ruco gloriaco atseguin-contentuac? ¡Ah¡ Aingueruen coruben artean lecu izatea, eta espiritu chit doatsu abequin Jaincoaren gloriaz gozatzea; Jaincoaren arpeguia aguirian ta arguiro ecustea; alde gucietatic arguitasun chit andi ta neurri gabe batez ingurutua izatea; heriotzaren bildurric ez izatea, ta atseguiñ ayec beñere galtzeco bildurric ez iduquitzea..... ¡Oh cer zoriona!

Baña, ene maitéac, beguirozute añ sari edo ordañ andira gurutzearen bidetic ezpada irichi ecin ditequeala. Beguirozute nola San Pablo apostoluac dion: *Zucentazunaren leguéac aguinzen duten eran peleatu izan dana besteric coroatua izango eztala;* onembeste bat zoriontasuni on baderizquiozute, neque-trabajuac icaratu bear etzaituzte. Abec eztaucate cer-ecusiric gloriaren parean..... Beguirozute, gurutzearen bidetic ezpada, iñor ere ce-

ruan sartu eztala. Bide onetatic joan dira Jesus ta Maria, ta diran Santu ta Santa guciac. Bide au Jesus-ec bere oñátzac odolez busti ta utzi, ta cer eguin bear degun eracutsiaz, idiqui zuan..... Eta ¿Jesus aurretic dijoala, ta Maria ta Santu guciac beraren ondoren dijoacela, bérai jarraitzetic atzeratuco cerate? ¿Ez nosqui: anima zaitezte, bada, beren ejemploarequin eta ceron buruai esayezute Aita San Agustiñ-ec ondu cediñ baño len bera añ arritzen zuten heremuco Santu ta Santen bicitzac iracurtzean, bereari ciotsana: *¿Et non poteris tu quod isti et istæ potuerunt?* ¿Nere salvacioa nai duan Jaunaren lagunzarequin eta orretaraco esqueñtzen didan bere graciarequin eciñ dezaquezu zuc, ayec al izan dutena? Bai, ene semeac, alaitu, ondo alaitu, bada Cerura joan bear degu; cerua gatic cispiratu ta lan-eguin bear degu; an beti gure biotza

iduqui bear degu, gure on eguiazcoa an dagoalaco.

Ea bada, bideco nequeac gatic ez icaratu; anima zaitezte, abec aituco dirala, ta guero gloriac beti iraungo duala, gogoratuaz. Onela eguiten badezute, duda gabe demonioaren lazo ta astrucia gucietatic gordeco cerate ta ceron *animac* salvatuco dituzute, ceña dan mundu onetan Jaincoaz urrena dan gauzaric estimagarriena; Jaunaren lagunzarequin ez dezute eguingo pecatu mortalic, eta baldiñ ala zori gaiztoan batean edo bestean erori bacerate, pecatu artatic bereala irtetera sayatuco cerate, onetaraco Mariaren bitartecotasun chit indartsuaz baliatuaz, eta au iristeco egun gucietan berari deitu, ta bere servitzuco gaucen bat eguin ta bera zuen alde ipiñiaz; eta guciaz gañ amatuco dezute Jaincoa gauza guciac baño gueyago, eta au da zuei eracusteco eseri-

ai izan dedan gucia. Onela beti bil-
ntu ta gozo bat izango diozute, eta
nandamentu santuac gordeco ditu-
ceña dan bicitz onetan eguitecoric
ia eta izango dezute guero berá ce-
beticotasun gucian bedeicatzearen
. An gucioc alcarrequin ecusi gai-
Amen.

CRISTAUAREN EJERCICIOA.

GOICERACO.

Esnatzean eguingo du gurutzearen siñalea, esanaz: Gurutze santuaren siñalea gatic † gure etsayetatic † libra gaitzatzu gure Jaun eta Jaincoa †. Aitaren ta Semearen ta Espiritu Santuaren icenean.† Amen Jesus.

Guero esango du: Jesus ta Maria, ematen dizquitzutet biotz ta anima neria.

Jaiqui ta jancitacoan belaunicatu ta esango du: Nere Jaun eta Jabea, zugan siñisten det ta nere ustea daucat, adoratzen eta amatzen zaitut nere biotz guciaz. Esquer milla ematen ditzut ecer e-

gatic eguin izan nazulaco, erredimitu nazulaco, cristau eguin nazulaco, eta gauonetan gorde nazulaco. Esqueñtzen ta consagratzen dizquitzut zure honra ta gloriaraco nere pensamentu, itz, obra lan eta neque guciac. Chit humillqui escatzen dizut nere pecatuen barcacioa, eta damu det nere biotz gucitic zu ofenditu izanaz; eta Jesucristoren eta bere Ama chit Santaren merecimentuac gatic berriz ez ofenditzeco gracia escatzen dizut.

Ondoren errezatuco ditu Aita gurea ta Ave Maria eta Credoa; *eta Virgiña chit Santa gana zuzenduaz, esango du:* O Virgiña chit Santa eta Jaincoaren Ama, ni zure semetzat ematen naiz, eta zure garbitasunaren honran ta glorian esqueñtzen dizquitzut nere anima, gorputza, sentidu eta potenciac; eta escatzen dizut, irichi deguidazula iñoiz ere pecaturic batere ez eguiteco gracia. Amen Jesus. *Iru Ave Maria.*

Oraň deituco dio guardaco Aingueru santuari, esanaz: Aingueru santua, ceñaren contura Jaincoac bere ontasun ondogabea gatic ipiñi nauan, argui nazazu, gorde nazazu, zucen nazazu ta guia nazazu.

Lanari asiera emateracoan esango du: Esqueñtzen dizut, ene Jaincoa, lan au: bota zazu arren beraren gañera *zure bendicio* santua.

Egunaren bitartean jasoco du chit *sarri biotza Jaincoa gana ondorengo oracio labur abec edo beren guisaco besteen batzuec eguiñaz:* Zugan sinisten det, ene Jaincoa, zugan esperatzen det; adoratzen ta amatzen zaitut gauza gucien gañean.

Nere Jesus, erruqui zaite nizaz. Lagun zadazu, nere Salvatzallea, zure graciarequiñ, iñoiz ere ofendi etzaitzadan.

Jateracoan esango du: Bota zazu, Jauna, zure bedeicacioa gure gañera, eta *artzera goacen* janari aben gañera, zure

servitzu santuan gorde gaitian. *Aita gure ta Ave Maria.*

Jandacoan emango ditu esquérrac, esanaz: Esquer milla, Jauna, mesede andiz eman diguzun janaria gatic, onezaz ondo usatzeco gracia iguzu. *Aita gurea ta Ave Maria.*

Erlojuac ordua jotzean, errezatuco du Ave Maria, *ta esango du:* Esqueñtzen ditzut, Jauna, ordu onen puntu ta instante guciac, eta guciac zure vorondate santua eguiten igarotzeco gracia indazu.

Baldin pecatuan erortzen bada, edo lecu eman ote dion edo ezean badago, berealaše damu bẹdi, eta biotzetic esan beza: Misericordia, ene Jaincoa, damu det biotz gucitic zu ofenditu izanaz, zu cerana ceralaco, ta gauza gucien gañean maite zaitudalaco: damu det, nere Jesus ona, pecatu eguiñaz: ta zure gracia ta laguntzarequiñ artzen det berriz zu ofenditu

baño lenago milla bider illtzeco asmo

Neque ta trabajuetan esango du: In zu paciencia, ene Jaincoa, eta niri nai be ematen didan neque edo eramanqui au nere pecatuen ordañean arzazu. Bec catua izan dedilla Jaincoa. Au gucia Ja coa gatic izan dedilla.

Abec eta beste itz ónac esango di gaiztoac esatetic gordeaz; bada añ er ta laster esaten da itz on bat, nola gá to bat.

Ave Maria-ezquilla jotzean, esango Angelus Domini nuntiavit Mariæ, et c cepit de Spiritu Sancto: *Ave Maria.*

Ece ancilla Domini, fiat mihi secund verbum tuum. *Ave Maria.*

Et Verbum caro factum est, et hab vit in nobis: *Ave Maria.*

Arratsean ánimena jotzean esango Deprofundis, *baldin badaqui, ta ezpe* Aita gure ta Ave Maria.

Gaŝoai Viatico chit santu edo Elizacoac daramazquienean, Jaunari lagunduco dio, al badu, ta onela irabacico ditu indulgenciac; eta ecin badu, belaunicatuco da, adoratuco du Jauna, errezatuco du Aita gure ta Ave Maria bat, *eta esango du:* Eman guiozu Jauna, gure senide gaŝo erri bere salvacioraco ta zure gloriaraco bear duana.

ARRATSERACO EJERCICIOA.

Oyera baño lenago belaunicatu, gurutzearen siñalea eguin, ta esango du: Nere Jaun eta Jabea, zugan sinisten ta esperatzen det; nere biotz guciaz adoratzen ta amatzen zaitut; esquer milla ematen dizut ecer ezetic eguin ninduzulaco, erredimitu ninduzulaco, cristau eguin ninduzulaco eta egun onetan gorde nazulaco.

Nere pecatúac ezagutzeco ta bérezaz damutzeco gracia indazu.

Emen begüiratuco du, egun artan pecaturen bat eguiñ ote duan, eta guciaz damuturic, damutasunic andienarequin esango du: Nere Jesus, erruqui zaite nizaz 78. *garren orrian becela.*

Ondorean esango du: Gorde nazazu pecaturic eguin gabe gau onetan, Jauna, eta gaitz gucitic libra nazazu.

Sayatuco da bere heriotzaco orduan naico luquean estaduan jartzera, eta dembora labur batean pensatuco du ceñ guchi aberastasunac, hónrac, atseguincontentu ta jostaquetac ordu artan servituco dioten; cembat naigabe eguin dituan pecatuac emango dizcaten, eta obra ónac cembat atseguin eracarrico dizcaten, eta esango du: ¡Cer nitzaz izango litzaque, ene Jaincoa, baldin gau onetan ill ta zure Tribunalean contuac ematera a-

guertu bear banitz! ¿Gracian nago, edo pecatu mortalean? ¿Confesio ónac eguin ditut, ala gaiztoac? ¿Cer estadutan arquitzen naiz? ¿Norbaiti gorroto diot, edo iñoren gauza nerequin daucat? ¿Birau ta juramentuac eguiteco, gaizqui esateco, jaiegunetan laneguiteco edo gauza loyac eguiteco oitura daucat? ¿Nere beargayac ondo eguiten ditut, eta dembora gauz ónac eguiten ematen det? ¿Galde abei cer eranzuten diezu? ¡Ay ene! ¡niri eguingo zadan juicioa ta escatuco zadan contua ceñ zorrotz ta estua izango dan! ¡Ta baldin dembora ematen zadan bitartean damutzen ta ondutzen ezpanaiz, ¡ceñ bildur izan bear dedan!

Guero esango ditu guchienaz ere Aita gurea, Ave Maria ta Credoa, *eta Aingueru guardacoari* 78 *garren orrian dagoan oracioa.*

Oyean sartutacoan esango du: Zure gra-

cian ill nadilla, ¡Oh Trinidade chit Santua! Jesus ta Maria, ematen dizutet biotz ta anima nerea.

Azquenic, escatuco dio Jaincoari bere bedeicacioa, bere buruaren gañean gurutzearen siñalea eguiñ, ta esanaz: Jainco guciz-aldun Aitaren ta Semearen † eta Espiritu Santuaren bedeicacioa *datorrela* nere gañera, eta secula gucietan nigan bici dedilla. Amen Jesus.

JAINCOAREN GLORIA GUEYAGORACO.